



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Mugikorrik gabeko jendea


Covid ziurtagiria. Pasa-
portea. Pasea. Ez dago
besterik azkenaldian.
Alde daudenak. Kontra
daudenak. Alde egonik
kontra daudenak. Kon-

tra egonik alde daudenak. Albistegi bete lerroburu; egunkari bete ikus-
pegi. Eta, denetan, irudi bera: jendea, mugikorra eskuan hartuta, petodun bati bere pantaila erakusten. Pentsatu dut, akaso, izango dela ziurtagiria inprimatu eta patrikan eramango duenik; baina mugikorrek soilik azaldu dira irudietan. Eta nire bu-
ruari galdezka nabil, pasaportea ez baina mugikorra noiz bilakatu ote zen bizitzeko ezinbesteko baldintza; taldeko kide izateko oinarritzko arau.

Eta zuek, mugikorrik gabe bizitze-
ko bezain ausartak izan zaretenok, zer leize zulotan ezkutatu zarete? Erdi biluzik al zabiltzate kalean, hankarte larruz estalita eta harpee-
tan bisonteak marraztuz? Omikron aldaerarik iritsi al da zuen sudur mintzetara? Zer liburu erosiko dituzue Durangoko Azokan?

Iristen al da Twitterreko eztabai-
darik zuen sutondoetara? Eta Face-
bookik gabe, nola bereizten dituzue
lagunak eta etsaiak? Nola osatzen
dituzue taldeak Whatsappik gabe?

**Telefonoaren dardara eta musika urduririk gabeko egunek ere ho-
geita lau ordu al dauzkate?** Hogeita bost, agian? Eta hitzorduak, nola jartzen dituzue? “Gaur bazkaloste-
an”, edo “arratsalde partean”, edo “iluntzean” bezain denbora tarte ze-
hatzak erabiltzen al dituzue? Eta bost minutuko atzerapenez bazabil-
tzate, nola bidaltzen diezue mezua lagunari? Edo hari abisurik eman
gabe ere lasai ibiltzeko bezain bihozgabeak al zarete? Eta zain egon



Ba al da oraindik telefono kabinarik gure herrietan?

GAUR8

behar dutenak zuek zaretenean, no-
la estaltzen duzue denbora?

**Zer irakurtzen duzue komuneko
eserialdietan? Trenean beste ino-
ren begiradari ihes egin nahi dio-
zuenean, zeri begiratzen diozue?**

Eta ezagutzen ez duzuen hiri bateko
ezagutzen ez duzuen kale bateko
ezagutzen ez duzuen leku baten bila
zabiltzatenean, zer GPS erabiltzen
duzue? Norbaiti zuen noraezaren
berri ematera ausartzen al zarete?

Zer zerbitzaritan ezkutatu dituzue
zuen datu eta algoritmoak? BIZUMik
gabe, nola egiten dituzue kuadrillako
kontuak? Edo tragorik ordaindu gabe
bizi al zarete? Eta Osakidetzak, Gizar-
te Segurantzak eta bankuak nora bi-
daltzen dizkizuite mezuak?

**Hor al zaudete? Benetakoak al za-
rete? Ba al da oraindik telefono
kabinarik gure herrietan?** Eta bal-
din badaude, haien hariak norabait
konektatuta al daude? Edo, telesail
zahar hartan bezala, denboran zehar
bidaiatzeko makinak al dira orain?
Eurotan funtzionatzen dute edo pe-
zeta eta frankoen garaian iltzatuta
geratu ziren? Zuek euroren bat izan-
go duzue patriketan, ezta? Nolakoa
da Glovo edo Deliveroo edo Just Eat-
tik gabeko zuen mundua? Zein hiz-
kuntzatan mintzo zarete?

**Eta kalean -baldin eta kalera ate-
ratzen bazarete- gutakoren bat
burua mugikorreko pantailara ma-
kurtuta ikusten duzuenean, zer
pentsatzen duzue? •**